

Hirigintza-zinegotzi hori:

Jakin berri dut Gasteizko Udalak ideia-lehiaketa bat antolatu duela emakumeen izenak kale batzuei ipintzeko, eta, oso ideia ona iruditzen zaidanez gero, parte hartzea gustatuko litzaidake. Zoritxarrez, historian zehar emakumeok desagertuta egon gara, beti bigarren leku batean eta aukerarik gabe gure izaera eta gaitasunak garatzeko. Horregatik, uste dut erraparratu behar izango genukeela bidegabekeria hau, eta, horretarako, ekarpen esanguratsu bat egin dutenak gogoratzea beharrezkoa da.

Aurrekoa esanda, aitortu behar dut jende askok esan ohi duela ez dagoela emakume ohorezkorik, hala ere, kaleetan dauden gizon guztiek merezi dute ohore hori? Nire ustez, arlo askotan aurki ditzakegu emakume bereziak, ausartak, azkarrak eta, oro har, aipagarriak, bereziki kontuan hartzen baditugu gainditu behar dituzten oztopoak. Adibide asko badaude, kirol arloan, literaturan, politikan, eta abar, bai bertakoen artean, bai atzerritarren artean. Izan ere, aldatu behar duguna gure ikuspuntua da, eta, horrela, begirada berri batekin, emakume azpimagarriak deskubrituko dugu.

Dena den, nire proposamena apur bat desberdina da, ez dudalako emakume zehatz bat proposatuko, emakumeak kolektibo bezala baizik. Batez ere, gustatuko litzaidake aukerarik ez dutenei omenaldi bat eskaintzea, gogor lan egin dutenei, indarkeria jasan behar dutenei, heldu ez direnei.

Bukatzeko, errepikatu nahi izango nuke oso ideia ona iruditzen zaidala antolatutako lehiaketa, eta, nire proposamena errealitate bihurtzen ez den arren, merezi du ekintza honetan edo beste antzeko batzuetan parte hartzea.

Besterik gabe, eta alde zuretik eskerrak emanez, agurtzen zaitut.